

## Rserba: FUNTSEZKO ELKARTEAK

### SARRERA:

- Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?
  - Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?
- Arriskuak murrizteko - Lankidetzaz
- Baliabideak lortzeko jatetxe/ tabernarekin harremana
- Bazkideak zehaztu



---

### AZALPENA:

Rserbaren proiektuak ondo funtziona dezan zenbait funtsezko elkarte hartu behar ditugu kontuan. Hasteko **bazkideak bideratu** behar ditugu. Mugikorrendako, ordenagailurako... aplikazio bat denez gure bazkideari dagokionez, segmentu handi bateri bideratuta dago. Horretarako, **adintarte bat ezarri** genuen, 16 - 50 urteko biztanleriarendako bideratuko genuen. Adin horretaz gain, adin-salbuespen bat egon daiteke. Hau da muga horrek **hornitzaileari dagokionez**, tabernak eta jatetxeak izango dira.

Tabernak eta jatetxeak, guri zuzenean dirua emango digute, beraiei zerbitzu bat eskaintzen eta ematen diogulako. Horrez gain, ez dugu beti aplikazioaren bitartez harremana izango, eta edozein aldaketa egin ahal izateko bazkari, afari bukaeran balorazio bat eskainiko da **etengabeko kontaktua** izateko gure bezeroekin, Hau guztiagatik, garrantzitsuak dira gure proiektua aurrera eramaten dutelako. Alde batetik, aditua dena gure oinarria izango da aplikazioa mantentzeko eta eguneratzeko. Bestalde herritarrak edo merkatu segmentu hori, gure enpresa aurrera eramango dutenak izango dira Rserba edo balorazioen bitartez. Guk enpresa moduan jarraitzeko, ezinbestekoa dugu.



Arestian aipatu dugun bezala, galera arriskuak murrizteko, jatetxe eta tabernarekin egingo dugu lankidetzat. Gainera, Rserba esker, enpresentzat oso beharrezkoa den **balio kualitatibo** bat aurrezten dute, hau da, denbora. Denbora asko galtzen baitute deiak hartzen, ordua adosten eta, azkenik, erreserba hori gordetzen. Beraz, plataforma honekin bat eginez prozesu guzti hori murriztuko zuten eta denbora hori beste gauza askotan inbertitu dezakete.

Gure elkarteak funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile edo bazkide sarea, **erakunde publikoak** (udaletxeak esaterako), **erakunde pribatuak** edota **partnerrak** izango genuke. **Ostalarien Gipuzkoako Elkartearen** bitartez, adibidez, Debagoieneko jatetxeen artean ezagutzera eman gaitzke bezero gehiago lortzeko aukera izanik. Bestalde enpresa berri bat denez, Udaletxeari **lokala** eskatu genioke, zein aldi berean lanerako eta bezeroaren harretarako lagungarria izango da. Lege berri bat jarri denez martxan, **Startapp**, 1.000 pertsonen gure aplikazioa deskargatzen dutenean, 10 eta 50 € arteko diru sarrerak izango ditugu. Azkenik, bazkide bat izan beharko dugu teknologiarekin **aditua**, aplikazioa eguneratzeko eta berritzeko.